

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, HONAKO HAU KONTRATATZEKO: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA) KUDEATUTAKO TRAPAGARAN UDALERRIKO BANAKETA-SAREKO IHESAK AURRETIAZ LOKALIZATZEKO GAILUAK HORNITU, JARRI ETA MARTXAN JARTZEA. ESPEDIENTE-ZK.: 3173.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Gorka Robredo Arzuaga
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK KUDEATUTAKO TRAPAGARAN UDALERRIKO BANAKETA-SAREKO IHESAK AURRETIAZ LOKALIZATZEKO GAILUAK HORNITU, JARRI ETA MARTXAN JARTZEA.
2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Trapagarango hornidura-sarea mantendu eta ustiatu egin behar denez, eta haren kudeaketan kontrol eta erantzun-denbora hobea lortzeko asmotan, jarduketa hauek egin behar dira: ihesak aurretiaz lokalizatzeko gailuak instalatzea, ILI eta ANR balio zuzenak lortzeko eta mantentzeko
3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Planteatutako lan guztietarako hornitzaile beraren ekipoak hornitu behar dira, eta hornitzaileak horien funtzionamenduaren eta mantentze-lanen jarraipena egin behar du. Laburbilduz, obra osorik barne hartuko duen lan-estrategia orokorra behar da, planteatutako azken arrakasta ziurtatzeko. Horrek loteka lan egitea zailtzen du. Egin beharreko lanak errepikakorrek dira, eta horrek merkatze nabarmena dakar lanak adjudikaziodun bakar batek egiten baditu.
4.- CPV: 38431300-8 ihesen lokalizagailua.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA**1.- Lizitazio-aurrekontua**
(BEZa gabe)**HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA
BEDERATZIEHUN ETA BERROGEI EURO**
(334.940,00 €)**2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 334.940,00 euro**Loteak: ☐ BAI ☒ EZ**3.- Prezioa zehazteko sistema:**☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak**4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:**Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:
161.00.21.201

- 2025. urtea: 134.000 € (BEZik gabe)
- 2026. urtea: 200.940 € (BEZik gabe)

5.- Prezioen berrikuspena:☐ BAI ☒ EZ**6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:**☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

- % 80ko kofinantzaketa: (BEZari dagokiona izan ezik).

7.- Ordaintzeko modua: Hileko ziurtagirien arabera: Ekipoen hornikuntzaren, instalazioaren eta abiaraztearen zati proportzionala ordainduko da, baita aholkularitza eta laguntza teknikoari, datu-komunikazioari, mantentze-lanei, web-plataformako datu-kudeaketako sistemaren kalibrazioari eta kontrolari dagokiona ere. Funtzionamenduan dauden eta adjudikaziodunari egotz dakizkikeen arrazoiengatik zerbitzutik kanpo ez dauden ekipoengatik baino ez da ziurtatuko zerbitzua.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria**D.- KONTRATUAREN EPEA****1.- Iraupen osoa: URTEBETE (1).****2.- Epe partzialak.**☐ BAI ☒ EZ**3.- Luzapena**☐ BAI ☒ EZ**4.- Bermealdia:** 2 urte, behin betiko harrera-akta sinatzen denetik aurrera.**5.- Kontratua exekutatzeko tokia:** BBUPen instalazioak**6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ.**E.- BERMEAK**☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez.
(334.940,00 €)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera bereko lanak egiten izandako esperientzia. Hori egiaztatzeko, interesdunak azken bost urteetan egin dituen lanen edo horniduren, kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera berekoen, zerrenda aurkeztu beharko da, obra ongi egin izanaren ziurtagiriek ziurtatuta. Gutxienezko baldintza izango da **exekuzio handieneko urtean metatutako balio zenbatetsia kontratuaren batez besteko urteko kuotaren % 70 edo handiagoa izatea.**

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

Proiektuaren Arduraduna: Ingeniaritzako unibertsitate-titulua duen profesionala, kontratuaren xedearen antzeko proiektuen kudeaketan gutxienez **5 urteko esperientzia** duena.

Teknikariak eta espezialistak: Ihesak aurretiaz lokalizatzeko gailuak instalatzeko eta mantentzeko eta datuak analizatzeko langile teknikariak, kontratuaren xedean eskatutakoen antzeko atazetan gutxienez 3 urteko esperientzia dutenak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**1. dokumentua.**

Proiektua egikaritzeko metodologia aurkeztu beharko dute lizitatzailleek; bertan, hauek proposatuko dituzte: lan-prozedura, oinarritzko edukia, antolakuntza eta plangintza (faseak eta kontrol-mugarriak barne), erantzuteko epe estimatuen konpromisoa eta abar.

2. dokumentua.

Lizitatzailleek ekipoak aurkeztu eta horien ezaugarri teknikoak garatu beharko dituzte, bai eta datuen eta komunikazioen kudeaketa ere.

3. dokumentua.

Lizitatzailleek mantentze-plana aurkeztu, garatu eta xehetasunez deskribatu beharko dute.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.
- b) Kontratuaren aurrekontua.

Excel txantiloia erantsi da 2. ERANSKINEAN. Bertan, adjudikaziodunak partida bakoitzerako eskainitako prezio unitarioa adieraz dezake.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**1.- Adjudikazio-irizpideak:**

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik ekonomikoenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomikorik txikiaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplikatu beharreko puntu guztiak egitea.

Hau da:

(Et / El) x z

Non:

Et =eskaintza ekonomiko txikiena

El =baloratzen den lizitatzaillearen eskaintza

z = irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**1.- Exekuzioaren metodologia - 10 puntu**

Lanen plangintzaren deskribapen zehatza, kokapenen proposamenetatik hasi eta neurketak integratzeraino, mugari desberdinen plangintza eta lan moten antolaketa zehaztea, eskatutako sistemetan seinaleak integratzeko helburua lortu arte.

2.- Ekipoen ezaugarri teknikoak, datuen eta komunikazioen kudeaketa - 20 puntu

Ekipoen ezaugarriak garatzea eta deskribatzea, baldintza-agirian eskatutako datuak eta komunikazioak kudeatzea, bai eta kontratuaren xedearen garapenari balioa ematen dioten beste batzuk ere.

3.- Mantentze-plana - 20 puntu

Prebentziozko mantentzea zein mantentze-zuzentzailea egiteko neurriak eta ekintzak deskribatzea eta proposatzea, eta instalatutako sistemaren, logistikaren eta abarren eragiketa-proposamenak egitea.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Baldin eta, lizitatzailerik bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerik egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerik egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.
- Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkaturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerik, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:
Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea.**ESKAINZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK**

- PTPAn edo administrazio-kondizioetan eskatutako kondizioaren bat betetzen ez duen eskaintza bat aurkeztea.
- Eskaintako ekipoek eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak ez betetzea.
- Eskaintako ekipoen marka eta eredu zehatzik ez zehaztea, «edo antzekoa» esamoldea edo parekoak erabiliz.
- Eskatutako dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo behar bezala ez egiaztatzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztaturia.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

EZ DAGOKIO

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VIII. Zaintza ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. **5. osagaiaren barruan («Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea»), 3. inbertsioa sartzen da: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren uraren sektoreko trantsizio digitala; osagai horretan kokatzen da lizitazio honen edukia; kontratistak/azpikontratatistak adierazi du horren berri duela eta bere jardueraren barruan betetzeko konpromisoa hartzen du.**

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

- 3. inbertsioa:
- **C5.I3a azpineurria**, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera

	hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo uraren banaketa-sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko. Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I3 atalean kokatzen direnez, <u>egin beharreko jarduketak esku hartzeko arlo honi dagozkio: < 3. inbertsioa: 040 - «Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (barne hartuta ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabiltzea, ihesak murriztea)»</u>, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren «Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia» VI. eranskinean jasotzen dena. Deialdia egiten duen entitateak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratatistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iriztitako jarraipen-txostenak, zeinak honako hauetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	EBEPE URA 2 – A.02
Kontratazio- organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciod eaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/C

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

- BBUPen Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- BBUPen Ingurumen arloko betekizunak betetzea.
- Segurtasun eta Osasun Azterlaneko betekizunak betetzea.
- Lanak zerbitzuaren beharren arabera izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.
- Zerbitzuak lehentasuna du obrako lanen aurretik, eta, ondorioz, obraren jardura harekin bateragarriak diren egun eta ordutegietara eramango da. Hori dela eta, honako hauek aurreikusi behar dira: gauez eta asteburuetan lan egitea, lanak egin bitartean eten luzeak egotea, eta kondizio jakin batzuetan lanak aldi baterako eta aurreikusi gabe etetea; hori guztia BBUPerako kostu gehigarriak gabe. Noiz
- ondorioz, baldintzatzaile horiek kontuan hartu beharko ditu obren prezioetan. Betekizun hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek eta istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Kontratistak deitzen duten bilera guztietan parte hartu beharko du. Obraren jarraipena egiteko bileretan, kontratista arduratuko da bileraren akta idatzi eta BBUPi bidaltzeaz, hark onespena eman eta, beharrezkoa izanez gero, oharrak egin ditzan.
- Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.
- Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, Preskripzio teknikoen agiri honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPekoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakiak hartzeko eta kontratuzko harremanetan zerikusia duen guztian kontratista ordezkatzeko gaitasuna duen ordezkari bat gaineratu beharko du obrara.